

IPUIN BATEN ATALAK



HASIERA

- **Noiz** gertatzen da?
- **Non** gertatzen da?
- **Nortzuk** dira protagonistak?
- **Nolakoak** dira?



KORAPILOA

Ipuinaren atalik garrantzitsuena da. Luzeena eta esanguratsuena ere.

- **Arazoa.** Zerbait berezia gertatzen da.
- **Gertakaria.** Arazoa konpontzeko hainbat gertakari agertzen dira. Asko izan ohi dira.

AMAIERA

Ipuinaren azken atala da. Istorioa bukatzen da hemen eta bi azpi atal bereizten dira:

- **Ondorioa.** Arazoari irtenbidea ematen zaio.
- **Bukaera.** Normaltasunera bueltatzen da. Ohiko egoerara.



ORDENATU ONDORENGO IPUINA:

HASIERA

KORAPILOA

BUKAERA

Bazen behin neska bat Amaia zuena izena. 10 urte zituen eta Donostiako auzo batean bizi zen bere ama eta txakurrarekin. . Ile lisoa eta marroia zuen. Nahiko altua zenez oso trebea zen saskibaloian jolasten. Bere ama 50 urte zituen eta lan eta lan ari zen egun osoa, horregatik Amaiak Lagun ateratzen zuen kalera paseatzera.

Egun batean Amaia eta Lagun kalean zeudela euria hasi zen. Laguni ez zitzaion gustatzen batere bustitzea eta urduritzen hasi zen. **Bapatean** ekaitza hasi eta Lagun korrika ihes egin zuen.

Amaia negar batean hasi zen. Ez zekien zer egin.

Minutu batzuk pasa eta gero Amaia konturatu zen Lagun etxeko bidea oso ondo ezagutzen zuela eta agian korrika batean etxera itzuli zela.

Orduan Amaia korrika etxera joan zen eta Lagun han zegoela ikusi zuen. Biak elkarri besarkatu ziren. Beno, Lagunek mingainarekin aurpegi osoa miazkatu zion Amaiari!

Amaia lasai gelditu zen eta hurrengorako badaezpada, euria egiten duenean Lagun lotuta eramango duela pentsatu zuen.